

# Immanuel Kant,

Ilustrazioaren filosofoa

"Bi gauzak betetzen dute nire gogoia mirespenez eta errespetuz: goiko zerua izarrez betea eta nire baitan bizi den moralak." (Arrazoi praktikoaren kritika, 1788)



*Immanuel Kant*

- Immanuel Kant (1724 - 1804)
- Prusiako Königsberg hirian jaio eta hil zen, eta han igaro zuen bere bizitza osoa, hango unibertsitatean irakasle.
- Pietismoan hezi zen. Pietismoa eraldakuntza pertsonala, espiritualtasunean eta kristau balio moraletan oinarritua, bultzatzen zuen erlijio-korrante protestantea izan zen, XVIII. mendean gailendu zena.
- Langile handia, ohitura metodiko eta zorrotzak zituen.
- Ilustrazioaren, Frantziako Iraultzaren eta Amerikako Estatu Batuetako independentziaren defendatzailea izan zen.
- Antimilitarista eta bakezale porrokatua izan zen.

Zer ezagut dezaket?

Arrazoimen hutsaren kritika (1781)

Zer egin, nola jokatu behar dut?

Arrazoimen praktikoaren kritika (1788)

Ohituren metafisika (1797)

Zer itxaron dezaket? Zertarako bizi gara?

Juzgamenaren kritika (1790)

Lan horietako *kritika* izena gaia aztertzeko modu zorrotz moduan ulertu behar da.

- Kant XVIII. mendean bizi izan zen, Argien Mendean. Mende horretan Ilustrazioaren mugimendu intelektuala garatu zen Europan, arrazoiaren gailentzea aldarrikatzen zuena.
- Ilustrazioaren arrazoa enpirikoa, kritikoa, autonomia eta sekularra zen.
- Kantek bereganatu egin zuen ideal hori. "Aude sapere" (Ausartu zaitez ezagutzen) leloa bere egin eta zabaldu egin zuen.
- Ilustrazioak jakintzaren aplikazioa, dibulgazioa, aurrerapen historikoaren ideia, erlijio natural edo arrazional bat, demokrazia eta giza eskubideak ere aldeztu zituen.

Kanten filosofiaren ardatzak 4 galderaren inguruan ardatzen da:

- Zer ezagut dezaket? (galdera metafisikoa)
- Zer egin behar dut? Nola jokatu behar dut? (galdera morala)
- Zer espero dezaket? (galdera erlijioso)
- Zer da gizakia? (galdera antropologikoa)

Kanten garaian bi eskola filosofiko zeuden ezagutzari buruz:

- arrazionalismoaren arabera, egiazko ideia eta printzipioetan oinarriturik, posible da ezagutzea, ezagutu nahi den gaia esperientziatik kanpo egon arren; beraz, metafisika egiazko ezagutza izan daiteke horren arabera.
- enpirismoaren arabera, esperientzia daukagun horretatik soilik izan dezakegu egiazko ezagutza; beraz, metafisikaren aztergaia esperientziatik kanpo dagoenez, ez da inoiz egiazko ezagutza izango.

Kantek ezagutzari buruzko teoria propioa eratu zuen, arrazionalismoaren eta enpirismoaren sintesia eginez.

# Zer ezagut dezaket?

Proposizio zientifikoak, hala nola matematikakoak eta fisikakoak, aztertuz, Kantek proposizio edo judizioen bi sailkapen egin zituen bere teoria eratzeko:

- a priori (aldez aurreko) eta a posteriori (ondorengo)
- judizio analitikoak eta sintetikoak, judizioak.

# A priori eta a posteriori judizioak

- *A priori judizioak* unibertsalak eta beharrezkoak dira, hau da, beti betetzen dira, salbuespenik gabe, eta beraz ez dugu esperientziaren beharrik horiek egia direla baieztatzeko. Arrazoimen hutsa baliatuz dakigu egia direla. Adibidea: " $3+2=5$ ".
- *A posteriori judizioak* esperientziaz egiaztatzen dira eta partikularrak eta kontingenteak dira (beste era batera izan litezke). Adibidez, "ikasle guztiek gaingitu dute azterketa", "irakasle batzuk ez dira etorri".



# A priori eta a posteriori judizioak

Kantek ezagutza handitzeko a priori nahiz a posteriori judizioak, arrazoimen hutsa eta esperientzia alegia, behar ditugula baieztatu zuen, eta horrela arrazionalismo hutsaren eta enpirismo hutsa aurka agertu zen. Bere jarrerari kritizismo deitzen zaio.

Kantek beste bereziketa hau ere egin zuen proposizio edo judizioei buruz:

- *Judizio analitikoak* definizio hutsak dira eta ez dute berez ezagutza handitzen, ez dute informazio berririk ematen, predikatua subjektuaren barruan dagoelako haietan. Adibidez: "triangeluak hiru angelu dituzte", "ezkonduak ezkondata daude".
- *Judizio sintetikoetan* predikatua ez dago subjektuan inpliziturik, eta beraz informazio berria jasotzen da haietan. Adibidez, "zuzena bi puntuen arteko distantzia laburrena da".

Ikus, Gizapedian: Subjektu eta predikatu

# A priori judizio sintetikoak

Kantek a priori judizio sintetikoak definitu zituen lehen aldiz: a priori dira, esperientzia hutsez egiaztatzen ez direlako, eta sintetikoak, informazio berria ematen dutelako. Orokorrean, zientziak judizio hauei esker egiten du aurrera: arrazoimena, hots a priori judizioak erabiliz, erabiliz; baina aldi berean judizio sintetikoak plazaratuz, informazio berria ematen dutenak.

Judizio a posteriori sintetikoek berriz, ez dute aparteko garrantzirik zientzian: errealitatean dagoena adierazi baizik ez baitute egiten. Benetan interesgarria errealitatetik ondorioak ateratzea da, arrazoimena erabiliz, hau da, a priori judizioak planteatuz.

Beraz, Kanten arabera, proposizio zientifikoak judizio a priori sintetikoak dira:

- sintetikoak, esperentziaz egiaztatzen direlako;
- a priori, haietan badagoelako zerbait esperentziatik ez datorrena, zerbait arrazoitu beharrekoa, bestela partikularra eta kontingentea izango bailitzateke, eta proposizio zientifikoak unibertsalak eta beharrezkoak dira.